



**XXXIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA**  
**EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA**

XXXIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Alexander Huitzi Alfonso, Andoaingo Udaleko Euskararako zinegotzi arduraduna.
  - Mahaikideak: Itxaro Borda, Aingeru Epaltza, Maite Goñi, Elixabete Larrinaga, Ion Muñoa eta Jon Sarasua.
  - Idazkaria: Arantza Aguado, Andoaingo Udaleko euskara teknikaria.
- Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, gehiengoz.

**AZKEN ERABAKIA**

Epaimahaiak 2021eko urriaren 19an izendatu zituen zortzi finalistak, sari atal bakoitzeko launa, ondorengoak:

**Kazetaritza Sarirako FINALISTAK:**

Berria egunkarian argitaratutako <b>Ahomentan</b> izeneko elkarrizketen seriea
<b>Beñat Zalduak</b> Gara egunkarirako idatzitako <b>Nola iritsi gara honaino</b> seriea
<b>Zaballako espetxetik egindako Faktoria</b> saioa (Euskadi Irratia)
Berria egunkarian <b>Urtzi Urrutikoetxeak</b> idazten duen <b>Leku-Lekutan</b> izeneko atala

**Komunikazio Sarirako FINALISTAK:**

<b>Barruan gaude</b> podcast-a
<b>Basilika</b> podcast-a
<b>3000twitz</b> kolektiboa
<b>Pantailak euskaraz</b> egitasmoa

Maila bereko baina ezaugarri ezberdinetako bi sarik osatzen dute 2021eko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: *kazetaritza saria* eta *komunikazio saria*. Jada aipatutako zortzi finalisten artean, batzuen eta besteen merezimenduei buruz eta saridun izateko egokieraz iritziak azaldu eta eztabaidan jardun ondoren, honakoak dira epaimahaiak gehiengoz saridun izendatu dituenak:

**Kazetaritza saria 2021: Beñat Zalduak** Gara egunkarirako idatzitako **Nola iritsi gara honaino** seriea

*Gara* egunkarian agerturiko artikulua sorta bat da Beñat Zalduari dagokion proposamena. Pandemiaren eta birusen inguruko xehetasun historiko eta literarioak ekartzen dizkio irakurleari, aldi batetik bestera, irakurlearen arreta bereganatzea eta luzeran atxikitzea



lortuz. Denboran barna egindako bidaia batera deitzen gaitu, eritasunak kudeatze alorrean nondik gatozen ikas eta jakin dezagun. Koronabirusaren krisia klima aldaketarekin eta beste zenbait gertaerarekin lotzen ditu Zalduak, haren zergatietan sakonduz. Urte hasieran argitaraturiko sorta, guztira, zortzi artikuluz osatuta dago. Epaimahaiaren iritziz historia humano baten dibulgazio saio indartsua da, aberatsa, zorrotza eta irakurtzeko erakargarria, artikulua idazteko garaian irakurlea gaiaren mamira nola erakarri aintzakotzat izan duena, ahaztu gabe ere Iker Morenoren Ilustrazioek argitaratutakoari ematen dioten originaltasuna eta exotismoa.

*Saria:* 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

### **Komunikazio saria 2021: Basilika** podcast-a

Diziplina anitz elkartzen duen Basilika kultur ekimenak sortua da podcast-a, hausnarketa kritikoa bultzatzeko xedez. Literaturaren eta arte garaikidearen arlo ezberdinak jorratzen ditu podcast berri honek. Hilabetean behin lauzpabost saio plazaratzen dituzte. Gogoetara eramaten gaituzte. *Sakoneta, Zeelanda Berria, Phoenix Raggazza* eta *Sector Conflictivo* dira oraingoz egindako saioak. Orain arte, gai hauek aztertu eta eztabaidatu dituzte: Onespina eta abusua, Moderno izatea zen den eta kultur kritikaren arazoa, besteak beste. Arte mailan aldiz, EH-ko museoetan ikusten ahal diren erakusketa originalak aipatzen dituzte, artistak zein mugimendu artistikoak ere bai... Interes handiko gaiak dira, orokorrean.

Sortzaileek adierazi dutenez *“pentsamendu konparatuan, hausnarketa kritikoan eta gaur egungo kultur ekoizpenaren forma desberdinen gaurkotasun-harremanetan arakatzea”* da asmoa.

*Saria:* 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Sariei buruz esatekoak amaitzeko, esker ona azaldu nahi die epaimahaiak aurtengo RAKSera proposamenak bidali dituzten kazetari, komunikatzaile eta herritarrei. Esker ona proposamenak aurkezteagatik. Asko izan dira epaimahaiak aztergai izan dituenak: genero eta euskarri ezberdinetakoak, erreportaje bakanak zein sortak, lan solteak nahiz askotariko biltegi eta sekzioak, egile bakarrenak zein taldean egindakoak... Bihoakie denei epaimahaiaren esker ona, eta baita ere beren lanaren balioaren aitormena, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren munduan ugariak baitira kalitate, bikaintasun, berrikuntza eta eredugarritasun irizpideak betetzen dituzten lanak.

Azken Erabaki hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hogeiko azaroaren hemeretziaren.

**Mahaiburua:**  
Alexander Huitzi Alfonso



**Mahaikideak:**

Itxaro Borda

Aingeru Epaltza

Maite Goñi

Elixabete Larrinaga

Ion Muñoa

Jon Sarasua

**Idazkaria:**

Arantza Aguado Perugorria